

# IRUÑEKO EMAKUMEEN ETXEA SORTZEKO PROZESUAREN HIRUGARREN SAIOA

Plazara!, 2018ko maiatzaren 16a. 18:00 – 20:00.

## 1. Saioaren aurkezpena eta elkar ezagutzeko ariketa

Gai zerrendaren berri eman zen, laburki. Aurreko saioen laburpena bidaltzen ari zaie etorri direnei, posta elektronikoaren bidez, eta Erabaki plataforman laburpen bat egiten da. Helbide elektronikoa ondo eman dutela egiaztatu behar dute zenbaitek, helbide elektronikoa batzuek arazoak ematen baitituzte.

## 2. Emakumeak eta emakumeen kolektiboak identifikatzeko **puzzlearen ariketaren errepassoa.**

Eskatu zitzaizkien zirkulu berdeak jartzeko non eta identifikatuta sentitzen ziren puzzle-pieza horietan. Horrela ikusi zen zenbait talde ez daudela ordezkaturik. Gazteak, nerabeak, sexu-langileak edo prostituituriko emakumeak, sexu-aniztasuna, ... Zirkulu gehien lortu zituzten etxean lan egiten duten emakumeen eta feministen piezek.

Gogora ekarri zen koaderno bat banatu zela, hainbat galderarekin, Emakumeen Etxeak kontuan hartu behar dituen beharrak jasotzeko asmoz, hala banako zein taldeko ikuspegiari nola identifikatutako beste kolektiboen beharrei ere dagokienez. Lan ildo horri eutsiko zaio.



### 3. **Elkarri entzuteko** ariketa

Emakumeak bi ilaratan jarri ziren, parez pare, eta elkarri entzuteko ariketa egin zuten. Oro har, konplizitate handia eta entzuteko prestasuna antzeman zen emakume guztien aldetik.

### 4. Emakumeen Etxea martxan jartzeko **sei gai nagusiren gaineko adostasuna.**

Atal honetan, sei gai aurkeztu ziren, eta horien bitartez erakutsi lehenengo bi bileretan landutako alderdi guztiak: filosofia, guneak eta baliabideak, jarduerak eta programak, finantzaketa-eredua, kudeaketa- eta funtzionamendu-eredua, eta zerbitzuak. Bilerara etorri ziren guztien iritzia jasotzeko, zenbait galdera proposatu ziren azken hiru gai horien kariatara.

Adostutako eta eztabaidatutako guztia hurrengo saioetan landuko diren sei agiritan bildu da, eta agiri horiek eranskin moduan bidaliko dira laburpen honekin batera.

### 5. **Ebaluazioa** eta amaiera

Saioa ebaluatzeko, eskatu zitzaizkien banan-banan esateko zer ekarpen egin zuen saioan, eta, bestalde, zer zen berak jasotakoa, beste pertsona baten ekarpenetik. Bitartean, esku guztiak batu ziren. Hori horrela, denen artean honako kontu hauek plazaratu zituzten saio honetan: denbora, entzutea, alaitasuna, zerbait eraikitzeko harri-koskorra, behaketa, hausnarketa, giro ona, emakumeen alternatiba, segurtasuna, Etxe bat izateko gogoia eta proiektu hau zerbait zoragarri bilakatzeko sormena.

